

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	IKUS-ENTZUNEZKO LANAK PRODUZITZEKO ARAUDIAREN KONTROLA (zeharkakoa)	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF0363		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Telebistako produkzioko laguntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Telebista-produktuaren lanerako prozesuen kontrola	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Telebistako produkzio baten lanerako planaren segimendua	Iraupena	40
	Telebista-programen merkataritza-sustapena eta -ustiaketa		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0209_3 TELEBISTA-PRODUKTUAREN LANERAKO PROZESUAK KONTROLATZEA ETA AZTERTZEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ikus-entzunezko produkzioko jardueren garapenaren lege-esparrua aplikatzea.

E1.1 Ikus-entzunezko produkzioarekin erlazioatutako lege garrantzitsuenen alderdiak laburbiltzea eta ebaluatzea.

E1.2 Egile-eskubideekin eta Jabetza Intelektualari buruzko Legearekin erlazioatutako produkzioko alderdiak eta izapideak azaltzea.

E1.3 Ikus-entzunezko lana Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lantzat hartzea, oinarriko eskubideak kudeatzeko: musikarenak, egileenak eta lege-gordailua, besteak beste.

E1.4 Ikus-entzunezko lanei buruzko Espainiako eta autonomia-erkidegoetako lege garrantzitsuenen alderdiak deskribatzea.

E1.5 Ikus-entzunezkoaren produkzioari edo sustapenari eragiten dioten nazioarteko legeekin erlazioatutako alderdiak eta izapideak deskribatzea.

E1.6 Mezenasgoari, babesletzari eta emariari buruzko legearen ezaugarriak deskribatzea.

E1.7 Ikus-entzunezko produkzio baterako aseguruari eta polizei buruzko Espainiako eta erkidegoko legea labur-labur deskribatzea.

E1.8 Ikus-entzunezko proiektu batetik abiatuz:

- o Jatorrizko gidoi bat jabetza intelektualean erregistratzeko egin behar diren izapideak identifikatzea.
- o Literatura-lan bat egokitzeko eskubideak izateko egin behar diren izapideak identifikatzea.
- o Obra bat lege-gordailuan eta marka edo logotipo bat Marka eta patenteen bulegoan inskribatzeko prozesua deskribatzea.
- o Ikus-entzunezko produkzioari laguntzeko deialdi publikoetara aurkezteko lege-baldintza nagusiak ezagutzea.

A2: Ikus-entzunezko produkzioko prebentzio-jarduerak eta/edo babes-jarduerak proposatzea, arrisku-faktoreak eta horiek osasunean eta ingurumenean dituzten ondorioak murrizteko.

E12.1 Lan-eremuko arrisku-egoera ohikoak identifikatzea, eta horien arabera jardura teknika orokorrak ezartzea.

E12.2 Ikus-entzunezko sektorearen jarduerari eragiten dieten Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko Legearen atal nagusiak aipatzea.

E12.3 Osasun- eta ingurumen-kalteak sailkatzea, ondorio eta arrisku-faktore kalte-sortzaile ohikoenen arabera.

E12.4 Langileek eta enpresak prebentzio- eta segurtasun-arloan dituzten eskubide eta betebeharrak definitzea.

E12.5 Arrisku ohikoenetarako prebentzio-jarduerak eta/edo babes-jarduerak sustatzea, ondorioak murrizteko.

E12.6 Jarduera-protokoloak aplikatzea gerta litezkeen larrialdietan, kasurako:

- o Zeregin espezifikoez arduratu behar duten pertsonak identifikatzea.
- o Detektatutako disfunczio eta gertaera arriskutsuen berri ematea.
- o Larrialdietan eraikinak ebakutzea, ezarritako prozedurei jarraikiz.

A3: Egoera simulatuetan berehalako oinarriko osasun-neurriak aplikatzea istripua izan den lekuan:

E13.1 Zenbait zauritu edo zauritu ugari dauden kasuetan esku hartzeko lehentasunak identifikatzea, zaurien bizitza arriskuan jartzen duten lesioen arabera.

E13.2 Aurreko kasuan, zaurien arabera aplikatu behar diren neurrien segida identifikatzea.

E13.3 Osasun-teknikak aplikatzea (bihotz-biriketako bizkortzea, immobilizazioa, garraiatzea, etab..), zehaztutako protokoloari jarraikiz.

Edukiak

1. Ikus-entzunezko sektoreko lege espezifikoak

- Sektoreari eragiten dion araudi nagusia.
- Jabetza intelektualari buruzko legedia betetzea.
- Egile-eskubideei dagokienez kontuan izan behar diren alderdiak: Eskubideak kudeatzen dituzten erakundeak.
- Eskubide hurkoak.
- Babesletzari buruzko araudia.
- Poliza eta aseguruari buruzko legedia.
- Ikus-entzunezkoaren produkzioari eragiten dion legedia: irudi-eskubideak, haurrei buruzko legedia, azientei buruzkoa, etab.

2. Laneko segurtasuna eta osasuna ikus-entzunezko produkzioan

- Laneko segurtasunaren eta osasunaren oinarritzko kontzeptuak.
 - Arrisku profesionalak.
 - Lanaren ondoriozko kalteak.
 - Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarritzko arau-esparrua.
- Arrisku orokorrak eta haien prebentzioa.
 - Segurtasun-baldintzekin lotutako arriskuak.
 - Laneko ingurumenarekin lotutako arriskuak.
 - Lan-karga, nekea eta lanean gustura ez aritzea.
 - Arriskuak kontrolatzeko oinarritzko sistemak. Norbera babestea eta babes kolektiboa.
 - Larrialdi- eta ebakuazio-planak.
 - Langileen osasunaren kontrola.
- Ikus-entzunezko sektoreko arrisku espezifikoak eta haien prebentzioa.
 - Arrisku-faktoreak.
 - Prebentzio- eta babes-neurriak.
 - Lanaren antolaketa segurua.
- Arriskuen prebentzioa kudeatzeko oinarritzko elementuak:
 - Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten erakunde publikoak.
 - Prebentzio-lanaren antolaketa: oinarritzko errutinak.
 - Dokumentazioa: jasotzea, prestatzea eta artxibatzea.
- Lehen laguntza.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako produkzioko laguntza